

Merkatuaren segmentazioa

Nortzuk izango dira gure bezeroak? Planet-en, gure bezeroak dira gure negozioaren bihotza, eta gure komunitate bereziaren parte direnen berri eman nahi diegu.

Jasangarritasunera eta kontsumo kontzientera bideratutako pentsamoldea partekatzen duten pertsona eta familien talde bati zuzenduta gaude. Hauek izan daitezke gure bezeroetako batzuk:

Ekintzaileentzat eta enpresa txikientzat, ekipamendu eta altzarien kostua hasierako oztopoa izan daiteke. Planeten behar dutena alokatzeko malgutasuna eskaintzen dugu aurrez inbertsio garestiak egin beharrean, negozioa hazten zentratu ahal izateko.

Urtebetetze jaiak, ekitaldiak, antolatzaileek Planet-en aukera zabala aurkitzen dute, ze aldi baterako behar dute eta beraien ekipamenduen beharrak asetu nahi dute..

Noizbehinka abenturak bilatzen dituztenentzat, kanpin-ekipamendua, bizikletak eta horrelako gauzak ere eskaintzen diegu.

Gure enpresaren beste bezero batzuk fashionista kontzienteak dira, hauek beraien alde dauden etika eta beraien aurrekontua arriskuan jarri gabe ondo jansteko erosi nahi duten modazaleek konponbide oso ona, edo perfektua aurkitzen dute gudan. Kalitate handiko artikuluak eta diseinatzaile eksklusiboak alokatzen ditugu, moda gustatzen zaizkien bezero hauei alokatzen diegu, gure bezeroei modaz gozatzeko aukera emanez gehiegizko prezioetik atera gabe.

Planeten ez dugu alokairu zerbitzua soilik eskaintzen; Iraunkortasunaren eta eraginkortasunaren balio komunek batutako komunitatea eraikitzen dugu. Hemen denak ongietorriak dira, eta harro gaude alternatiba kontzienteago eta arduratsuagoa bilatzen dutenen bizitzako parte izateaz.

Laburbilduz, gure bezeroak kalitatea, iraunkortasuna eta malgutasuna baloratzen dituzten pertsonak dira. Planet-en , bizimodu adimentsuagoa eta iraunkorragoa bilatzen dutenentzat hobetsitako aukera izaten jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu. Sartu gure komunitatean eta ezagutu kontsumo kontzientearen ikuspegi berri bat!